

Ikastolaren inguruan

Ikastolaren inguruan ikusten den zenbait arazoz mintzatu nahi genduke. Ez, noski, legearen aldetik edo geuron arteko eztabaiden aldetik edo diruaren aldetik dauden arazoz.

Gauza askotaz jabetzen da ikastolaren inguruan dabilana. Premia asko nabaitzen du. Hoietakoa iru aipatu nahi genituzke gaurkan.

Ikastolak bere egiteko obeto bete dezan, besteak beste, mintegi bat behar luke. Hau da, iru urtez beheko aurrak ere bere esku beharko lituzke. Guarderia edo aur-zaindagi bat beharko luke. Honelako zerbait egiten ari dira Tolosan, jakin dugunez. Donostian ere bada asmorik.

Behar beharrekoko ditu ikastolak erri auditan eskual giroko aur-zaindagi edo mintegi hauek. Emen artuko luke etxean eta kalean erdal giroan bizi diren aurrak eskual-tertoa. Bestela, ikastolako eskual giro guztia birrintzen dute txertaka hauek.

Izan ere etxe askotan ez dira euskeraz mintzatuko gauza. Debekatua izan bait zituzten gaurko guraso askori eskual-izena. Etxean eskual giroa duten aurrak ere erdaldunen umez inguraturik daude. Honelako mintegi batean euskeraz ikasiko luke izketan aurrek.

Bestalde gaurko gizaratan honelako zerbait beharrezko gertatzen da lanera doazen amentzat. Besterik ezean, erdazkoetara eramango lituzkete eskual gurasoek ere, beren aurrak.

Garrantzi handikoa lituzke ikastolarentzat aurra jaio ordurako eskual giroan aztea.

Baina aurretik egin ez den lana gero egin behar izaten da. Euskeraz doi-doi besterik moidatzen ez den aur asko daukagu ikastolatan. Hau, batez ere, sei urtetik gorako aurrentzat da oso kaltegarri. Oso kezkatuak sumatzen ditugu hontaz zenbait maiu eta anderño. Ezin diote ikastolan eskual giroari etsi. Ezin dute irakaskintzan behar bezala aurreratu.

Horregatik da ain beharrezko larunbat-igandetakoa eta uda aldirako aur hoiertzat zerbait moidatzea. Bestela, ederaren erasoepen itoko dira. Hontan ere badabila zenbait, ikastolako aurrentzat, erri txikiatan, zerbait bilatu eta moldatu nahirik. Beharrezko dituen izadia eta eskual giroa aurkituko lituzke kaleko aurak. Hortaz gainera oso premiazko luke zenbait aurrek uda aldi bat berriruten batean igarotzea.

Bestela euskeraz oso moteldurik, atzeturik eta nagiturik datos ikastolako aurak ikastaro bakoitzaren asieran.

Eta azkenik, ikastolako aur "atzeratuak" arazoa aipatu nahi genduke. Badira Gipuzkoan aur "atzeratuak" ikastetxeak. Donostian, Azpetian, Legazpian. Bada eskual kezka ere, baina ez agian ikastolako aurri dagokien arabera.

Gainera ez dira ain "zeharo atzeratuak", onenean, ikastolako zenbait aur. Ez dituzte Patronato San Miguel bezalakoetan aruten. Hoierei ere erantzun beharko lituzkete, bailaraka bederen.

Denen den, ikastola inguruan bilu ditugun kezak ditugu. Erantzun egoki baten zai dauden arazoak ditugu.

GALLEGO HIZKUNTZA

Escola umeen hizkuntza arazok jende asko eta asko kezkatzen du mundu honetan. Begira nola mintzoan «Cuadernos para el Diálogo» aldizkariaren irakurle bat. Bere hitzak jostu ditugu guretzat ere garrantzizko direla pentsatz.

—OO—

Pozik irakurri dut EDEK langile arazoi eta Galiziako hazkundeari buruz argitaratu duen lana. Baina ez diteke egiazko aurrerapenik egin, ez sozial eta ez ekonomia aldetik, kultura alorrean ere egin ez bada. Horregatik pozik ikusiko genduke azken mendeotan gure hizkuntzak eta kulturak jasan duten atzerapenaren berri emango lukeen beste lan bat ere. Gezurra badirudi ere gaurko mintzabideak asko laguntzen diote gainbeherakada eta galzte hori.

Gure hizkuntzak, Galiziako hizkuntzak, ez duela balio adierazi zaigu, garbi eta aurrez-aurre ez bada ere, izkutuka eta zeharka antzean: gure hizkuntza langileen hizkuntza dela esan zaigu (langile mailakoa izatea pekatu balitz bezala); ez dela aurrerapenarentzat eta kulturarentzat tresna egokia; ez dela hizkuntza, hizkeltza bakirik baizik; hiru milioik bakarrak hitzeginen dugula, askoz ere gehiago mintzaten direla gure artean ere gaztelaniaz, eta honelako beste gauza asko esan zaigu. 50garren urtea zen noski, oso oker ez banago, gure hizkuntza kakeztatuz nahiz liburuxkak idatzi ziren urtea. Zorionez ez naiz orolizen beroietan esaten zenaz.

España, ere barruan daukan U.N.E.S.C.O.k «El empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza» izeneko liburua argitaratu zuen 1953garrenean. Honela dio:

«Uka ezifiekzo da, jatorrizko hizkuntza dela umea eskolatzeko biderik onena». Eta hauxe erantsit argitzen du: «Nola-hala dakian arrotz-hizkuntzan baino askoz ere hobeto eta azkarrago jasotzen du pedagogia aldetik jatorrizko hizkuntzan».

U.N.E.S.C.O. ren beste batzar batean ondorio hauetara irixi zen: a) «Etxeko hizkuntza da, umearentzat, gauzak esateko bide jatorra. Gauzak adierazteko bidea erabat lantzea da bakoitzaren premietako bat».

b) «Etxeko edo jatorrizko hizkuntzan hasi behar da edozein ume eskolatan». (Ez da entzuten Galiziako eskolatan gure hizkuntzarik non eta, non edo non, hontaz griaturikako maixurik ez dagoen).

d) «Zein batek zein bestek, hizkuntzek ez dute bere baitan traririk gaurko kulturaren bide izateko». (Ez dago, beraz, bat bestea baino hobeia dela esateko arrazoirik).

Gallegoa eta portugesa hizkuntza bat eta bera dela esan beharra dago gainera. Bakarra zen XIIIgarren mendearaino. Gerotik ez dira bi hizkuntza, hizkeltzi bi baizik. Hiru milioik baino gehiagok, elkarki esaten dioguna, jaso dezakegu, beraz.

Eskolatan eta da irakasten ez gallegoa eta ez gallegoz. Hori gutxi balitz bezala ez dugu ez egunekorik eta ez orri xixtrin bat bera ere gallegoz.

(Inglesez bat eta alemanez bestea argitaratzen dira, oker ez banago, Mallorkan). Ja erabat gallego mintzaten den irati bat bera ere ez dugu. Tebistan, berriz, ezta orduerditxo bat asteri bide-

Egunargia argiago bide da gaur eguerdian. Bazterrak baretu dira. Eta euri-jasen ondoren, oraindik lurra blai eginda dagoelarik, hortentsi-adarretan erreparatu ditut ninka hezeak sortzen ari; eta, hantzenka, mendi-mazeletan eta bidertzetan, kilinkondoan lore horiak. Zantzuok ez dute sekula hutsetegin: Udaberria heldu! Hurbil dugu udaberri miresgarria:

Bedatsian dirade zuhaiak loratzen...

Aurten, ordea, kanpotik-edo datorrik bedats-aire fina, itsas-haizea kanpotik etorri ohi zaigun bezalatsu. Udaberria odollean nabariturik ere, etsipen eta kezka gehiegitan nahasirik sumatu aste dut. Landareen altsuma xamur guriok bestela begiratzen niduten aspaldian; hori aste dut gaur bederen. Esperantza zen lehen udaberria, barne-tiraina; urteotan barrera, berriz, histu egin da nigan, loratu gabe zimeldu, barne-tiraina kanpoko haize bala epel bilakatu; eta gaur kanpotikoko apaingarri aparta gisa datorrik.

Egiazko udaberriak antzinako urteetan bilatu aste dut orrela. Udaberria lehen izan baitzen, lehenago, askoz ere lehenago, gaztaroa baino ere lehenago, oso urrungo urte urrun haieran... Picassox uxuen esana duen bezala, urteetan barrera oso nekez irauten baitu gaur haurtzaroen izan ginen poeta harrigarri haren. Liluraren sakona haurtzaroen! Gero, ondokot, ezari-ezarrian kamustua eta iraungia.

Gero eta maizago gertatzen da biziari atzera-behar hori; eta zeren seinale den badakit. Zerorrek ere bai irakurle horrek.

Ninika berriok, horretara, Txokolatene hartara eramau nautu gaur; eta masusten garratza senditu dut

ahoa, eta orban moreak esku ahurretan erreparatu. «Haiek bai udaberriak!», esango nuke bihotzez; gure aurrekoek esan izan duten bezala, eta gure ondokoek ere, gaur zernahi pentsatuagatik ere, esango duten bezala...

Txokolatene-ko aska hura gogoratzat zein, horrela, ezin-bestean bezala; eta hain gogoz urrupatzen genuen gaineko iturrira. Eta Altunaren etxea bururatzen zein, bihurtugonean; eta aurrez-aurre Marbil-Berriko zahaztia; eta aldapa izaltzuan gora arratsetan, isil-isililik eta elkarki gerritik heldurik, haren ondokit izkutuzten ziren maitele-bikoteak. (gure hartzaro-begiez ikusirik, sekula ere iritsiko ez ziren adin eta mentura harrigarriak).

Konporta-Berriko bidea datorrik burura (nahiz konportaren azken burdinak dexente erdotiturik izan!); eta Lizarriturri-ko usain sakorra senditzen bide dut berriro, oraindik ere, gudu-garaian bezala, kolpe eta koto urrinez oratua; eta Konportarekako kiratsaz eta arraitonez berriro nardatzen bide naiz...

Miramun-Jauregi ondoko murrusa sumatzen dut neure barruan, ituzardeladan behereko ezkerretatik ezkenik gabea. Eta frontina. Eta Txillarredgi hitza irakurtzen bide dut berri Matia-kaleko haresi-atari hartan...

Ezen Antiganu ezagutu baitut nik udaberria, kiratsaz eta kresalez batera osatua, langile-soineko urdinez eta baserrikutsuz ere mamitua; eta gerotik udaberrikeri ezagutu ez dudala iruditzen baitzaiz.

Antiguara narama horregatik oroi-menak; eta lehenengo ahuntzostoen urrin ederrak bitariko suntsitua omen den eskual Antigua herri-riska hartara narama bereziki.

Danieltxo ikazkin gizarajoa ikusten ari bide naiz, beti zarpatilantzita, eta askotan gure iralnen bitima. Eta Igarako bideko indiano harrigarri hura ikusten dut berriro, bizikletatik hamaika aldiz bezalaxe, beti ere bide ondoan aulki batetan eserita, norarik gabe beti so... Eta Errota-Berri hartako sagardotegi iluna birrikusten ari naiz hortentsi-nikez bestaldera, baserriarenez askotan bete; eta etxe ondoko uxola; eta Errota-Berriko Kandido mutiko jator hura, gurekin erdaraz fisisik ere ezin mintzatu!

Antiguako eskuldantun harrigarri hura ez dut gerotik izan non kausitu. Lurdes-Txiki ondoren gerta tu zait niri egundokoak euskara hutsaz entzutea (beharbada Rekondore izaberen batak botaiak!); eta Arratzainean oinean, Igaroko bide-muturrean beraz, Lesakako adiskide batek makilaldi gogor batetik salbatu izana, erribian zegoen baserriarenez haren ez baitzekien txintik erdaraz... Mila oroitzena, eta parokiaren ondoko eskolan bertan, ziplo isurtzen zen euskara hutsa Antiguako hauzoan! Hazparne, Urketa eta Donapaleu berak Erdal-Herri huts zaizkit, udaberria ezagutu nuen garaiko Antigua jator haren ondoren. Hantxe hozitu zen ene euskaltzaleasuna. Aldakuntza geroko hogei-ta-hamar urtek ekarri dute.

Eta orolzapenen hildotik abiatuz gero, Igeldoko funikulararen alde-ra narama ni baino sakonago dirudien zerbait. Tranbia zuriak sumatzen bide ditut oraindik, palmondo luze bakar haren ondokit kirrinka eta Irake ari, eta etxe luze haren barruan txanpon batez pelikula labor bat eskaintzen zuten tresna hura dukast, asperu ere arte lagun guztik begiratu eta bir-begiratu. Gauza bera nesake musika-zilindroa zerabilienk trankulu hartaz, eguneroko entzuna.

Udaberriaren etorrerak, ordea, harago ere narama, gorgo, Igeldo ez balia Txubillo geriztan tonorrea. Huraxe izan baita, aste dut, udaberriari dagokien gertaleku. Zubitxoan azpitik Isuriz, hementxe dut, aurre-aurrean, «Rio Mesterio-

so» hartako krokodilo argitsuak; eta kaiotetako tximu zalapartariak, «Bartolo» itsusia buru; eta 1936ko guduan mendian harrapatutako «Ursula» hartzema, urtetan barrera preso zahartua eta hila omen; eta karrusel bildurgarria, anitz garrasieren eragine; eta astotxo haiek, haurren eramale otzan... Eta aldean etengabe nahasirik, funikular-makineriaren zurrumuru, beti ari eta ari... Gutziz orolzapen xinpreak horiek oro, zeharo enetzako ahaztu-ezinezak, arras ere ene bizi-udaberri iritziak...

Gauza bat nuen, eta dut, Igeldon maiteenik: Udaberriaren bakarti zeuden atzekaldeko pinadia eta pinuen arteko bidetxorak, behin eta berri berri bitatuak. Hantxe entzun ditut nik isiltasun oso hartan Lizardiren «bizion oiñoka»; eta hantxe ere, halako batez, Debussy-ren «La Mer» bikaina... Bakardade momento hantxe izan dira agian neure bizian ezagutuko ditudan osoenak.

Aspaldiko kontuak! Badakit.

Ene hankek, ordea, ez dute hamabi urte honetan Txubillo maitea zapaldu. Urte gehiegi: nik baino hobeik inork ez daki. Eta aurtengo lehenengo nikinek, altsuemek eta musikilek, aurtengo udaberriko lehen aitziandierik, atzera naramate, Leku-Eder-era, Txubilloa, Igeldora; neure udaberri urrenuria naramate hain zuzen; Naturalezaren udaberriak ene biziera-udaberri-ari deingo bailoeken...

Txubillo bakartiko udaberri hura enea baitzen. Oraingoa, berriz, zuhaitzena zait, xorienea, itsasoarena... Besteena ere bai, Udaberri gaztaroi baitatxeko osoki; irribarre operoa ikutuko neska maiteminduari datokien bezala.

Gaur, horrela, hortentsi-ninka horiere ikusi ondoren, Txubilloko itsas-alde Isilera narama neure barruk, bideska izaltzua haletara, pinu-usailn daren eskualde adoratu haletara; eta, etxera beharrak eraginik, badantzu berriro, funikular-orroa urrunean gailen, egun hartan lilururirik entzun nuen Debussy-ren poema huraxe. Gaur badakit ordutan nigan piztu zen esperantza-uhin harroa udaberri-uhin bortitza zenez, ez dela nigan inoliz mamituko. Baina besterenezako izanik ere, inoliz obratuko ez diren ametsten iturri izanik ere, ederra da udaberria; gizonak ezagutu eta dasta dezakean olerrik ederrena baita.

Horregatik gaur, inoliz Txubilloko itsasalde birtuzeko «esperantza desaperatu» honek, orduan hainbatez, orduan baino ere harreago agian, bizi-erantzen nau; eta lilura zoroan kulunkatzen.

LARRESORO

ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:
Barruan 300 pezeta
Korreo batasunetako errian 350 pezeta
Atzerriariko besierriar 370 pezeta
Aldez Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitzaz) 7 pezeta

Irakola:
«Gráficas Navasala»
A. Adoain, 1 IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963

BEGIRUNEZ
Ricardo XIII e Carnicer